

INFORMAZIOAREN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETARAKO TRESNAK

IKASGAIAREN HELBURUA

Ikasgai honen helburua, ekonomi zein enpresa inguruetan, informazioaren kudeaketa eta antolaketarako erabili daitezkeen kontzeptu berriak eta tresna praktikoak aurkeztea da. Egun, merkatuan eskuragarri dauden software aukera ezberdinak, bai jabedun zein libreak, erakusten dira. Era berean, Interneti loturiko tresna eta teknikak aurkezten dira, informazio eta jakintzaren euskarri, bilaketa zein hedapenerako mekanismo gisa erabiliak izan daitezkeenak.

GAITASUNAK

Nahiz eta ikasgai hau "*Ciencias Sociales y Jurídicas*" ezagutza arloan barneratu izan, bere gaitasunak edozein jakintza arlotan baliagarriak eta are gehiago, informazio eta jakintzaren gizartean ezinbestekoak direla deritzogu.

- Ikasleari datuak eta informazioa antolatzen erakustea, egungo enpresa ingurunean erabili dezan.
- Datu base erlazionalen diseinu, sorketa eta galdeketaren inguruko ezagupenak jasotzea.
- Metodo ezberdinak erabiliz datuak bilatu, antolatu eta galdekatzeko oinarriko aplikazio informatikoak erabiltzea, enpresa arazoak ebazteko batez ere kalkulu orri bidezko datu tratamendua eta datu baseak proposatuz.
- Finantza eta inbertsio arazoei (balio galera kalkulatzeko metodoak, maileguen itzulketa, inbertsioen itzulkina, etab).
- Frekuentzia, bariantza, kurtosia, erregresio lineala, etab bezalako teknika estatistikoak aztertzea.
- Informazioa eta ezagupena bilatu, hedatu, eta bere euskarri izateko, zein enpresen arteko kolaboraziorako, Internet eta sare telematikoei erlazonaturiko trena eta zerbitzuak ezagutu eta erabiltzen ikastea.
- web 2.0 kontzeptuan oinarritutako zerbitzu eta tresnek enpresa ingurunean duten erabilgarritasuna aztertzea.

GAI ZERRENDA

LEHEN MODULUA: Informazioaren antolaketa eta egitura.

Egun informazioaren bolumena izugarri hazi da eta bere kudeaketak duen garrantzia ukaezina da. Bolumen hori kudeatu beharrak, datuak biltzeko eta kudeatzeko sistemak izugarri hobetu dira datu-baseen sorrerarekin. Sistema horiek datuak era osoan eta egonkorrean kudeatzen dituzte Datu Base Kudea Sistema deritzon aplikazioari esker. Modulu honetan Datu Base Kudea Sistema Erlazionaletan zentratuko gara, eta ikasitako kontzeptuak aplikatzeko Microsofteko Access softwarea proposatzen da.

1. GAIA: Datu Base Kudeaketa Sistemak. Kontzeptua eta sailkapena.
2. GAIA: Diseinu kontzeptuala eta datuen normalizazioa.
3. GAIA: Datuen galdeketa eta ustiapena.
4. GAIA: Enpresa eta finantza arazoentzat soluzioak.
5. GAIA: Kalkulu estatistikoak.
6. GAIA: Datuen inportazio eta esportazioa.

BIGARREN MODULUA: Datuen tratamendua Kalkulu Orrietan

Modulu honetan, Microsoft Excel kalkulu-orriaren funtzio aurreratuak deskribatuko ditugu; Exceleko liburu-etako formulak, funtzioak, taula dinamikoak eta grafikoak nola erabili bereziki. Era berean, datuen analisirako hainbat tresna azalduko dira eta programa honen bitartez datuen azterketa estatistikoan erabiltzen diren formulak landuko dira ere.

1. GAIA: Datu zerrenden kudeaketa.
2. GAIA: Funtzioen erabilera.
3. GAIA: Taula eta grafiko dinamikoaren sorketa.
4. GAIA: Analisisirako-tresnak: helburua bilatu, agertokiak, Solver.
5. GAIA: Datuen analisi estatistikoa.

HIRUGARREN MODULUA: Internet enpresetako Informazio Sistematan

Sare sozialak orain sare sozial birtualekin lotzen baditugu ere, pertsonak eta horien arteko erlazioek osatutako sareak dira. Modulu honetan sare sozialen azterketa enpresa munduan zentratuko da batik bat. Horretarako, hain zuzen, hainbat testuen irakurpena gomendatzen da eta Interneteko zerbitzu desberdinetan kontuak zabaltzea nahitaezkoa izango da web 2.0 eta sare sozialeko aplikazio desberdinekin esperimentatu ahal izateko.

1. GAIA: Erakunde birtualak eta enpresa sarean: sailkapena eta soluzioak.
2. GAIA: Enpresa 2.0. Enpresa irekia eta berrikuntza irekia.
3. GAIA: Sare sozialen erroka egungo erakundeetan.
4. GAIA: Sare sozialak elkarlanerako ahalbideratzen dituzten tresnak. Enpresan duten erabilgarritasuna eta aplikazioak.
 - 4.1. Blog korporatiboak.
 - 4.2. Mikroblogging. Twitter eta erabilera korporatiboak.
 - 4.3. Wikiak ezagupena elkarren artean banatzeko. Enpresa wikipediak.

- 4.4. Adimen kolektiboaz baliatzeko feed eransleak.
- 4.5. Bilaketa aurreratuak.
- 4.6. Ofimatika 2.0: Google docs eta beste tresna batzuk online.
- 4.7. Internet-en oinarrituriko sare sozialak: Facebook eta LinkedIn.

KRONOGRAMA

Ikasgai hau gainditzeko, gutxienez, 90 lan ordu behar izango ditu ikasleak; zehazki, 45 ordu teoriako aldean gomendatutako irakurgaiak eta materialak irakurri eta ikasteko, eta 45 ordu gehiago proposatutako ariketak egiteko.

Teoriari esleitutako orduak, zein ordu praktikoak horrela banatzen dira:

	TEORIA	PRAKTIKAK
1. Modulua	Irakurketa eta	Praktikak
2. Modulua	Ikasketa	Praktikak
3. Modulua		Praktika

Note: The original image contains a green bar with the text "Datu base baten diseinua eta ustiapena" which is partially obscured by the table structure. This text is included in the description of the first module's practicals.

1go Modulua: Informazioaren antolaketa eta egitura

Teoria: gomendatutako irakurgaiak eta ikasteko materialak (20 ordu)

Praktikak: (30 ordu)

- Datu basearen diseinu ariketak (3 ordu)
- Microsoft Access Datu Base Kudea Sistema erabiliz, proposatutako datu base baten diagrama erlazionala sortu eta kontsultak egikaritu (2 ordu)
- Gai honetan gehiago sakontzeko xedearekin, negozio ideia bat izango balitz bezala, ikasleak datu base batetan biltegitratuko duen gai edo "asunto" bat proposatu behar du, ondorengo ataletan, hots, datu basearen diseinu eta ustiapen ataletan zehar ideia hau praktikara eraman ahal izateko (25 ordu)

2. Modulua: Datuen tratamendua kalkulu orrietan

Teoria: gomendatutako irakurgaiak eta ikasteko materialak (10 ordu)

Praktikak: Kalkulu orria erabiliz proposatzen diren jarduerak (10 ordu)

3. Modulua: Internet enpresetako informazio sistematan

Teoria: gomendatutako irakurgaiak eta ikasteko materialak (15 ordu)

Praktikak: (5 ordu)

- Web 2.0-ren aplikazioak eta zerbitzuak erabiltzeko proposatutako jarduera (5 ordu)
- Autoebaluziozko inkesta (10 min.)

EBALUAKETA

Irakasgaia hau UPV/EHU-ko arautu gabeko irakaskuntzen barruan eskaintzen denez bere ebaluaketa ez da ohikoa izango. Irakasgaia osatzen duten hiru moduluak elkar independenteak dira, beraz ikasleak edozeinetik hasi dezake bere ikaskuntza. Irakasgaiaren ezaguera teorikoak lantzeko, modulu bakoitzaren barruan jarduera praktikoen egikaritzapena proposatzen da. Izan ere, ariketa bakoitzaren ebazpena eskaintzen da beti lortutako emaitzak egiaztatzeko. Halaber, lehenengo moduluen barruan gehiago sakontzeko helburuarekin, ikasleak berak proposatutako domeinu aplikazio batetarako datu base bat sortzeko aukera izango du. Zehazki, lan honen bitartez, ikasleak datu base baten bizitza zikloan zehar parte hartzen duten atal guztiekin probatu eta sakondu ahal izango du. Eta gainera, datu basea dokumentatzeko, web 2.0-ren zerbitzu baten erabilera proposatzen zaio; hots, edizio kolaboratiboko zerbitzu bat erabiltzea: Wiki-a alegia.

Azkenik, hirugarren moduluan, ikaslearen autoebaluaziorako inkesta bat diseinatu da. Inkesta, 11 galderataz osatuta dago; mota desberdinetako galderak dira eta erantzun on bakarrekoak. Modulu honekin praktikatzeko, Interneteko zerbitzu desberdinetan kontuak ireki behar izango ditu ikasleak